

JARDUERA-PROPOSAMENAREN DEIALDIA

1. Testuingurua

Bilbao Bizkaia Design Week (BBDW) Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ekitaldia da, kultura- eta sormen-industriak sustatzeko, garapen ekonomikorako eta lurraldearen nazioarteko proiektiorako faktore gisa.

2015az geroztik, Bilbo "UNESCOn hiri sortzaileen sarean" sartu zenetik Diseinua kategorian, eragile guztien parte hartzea izan nahi duen urteroko zita da.

Hauexek dira Bilbao Bizkaia Design Week astearen helburuak:

- _ Lurraldeko sektore sortzaileen lana eta ahalmen eraldatzailea sektore ekonomikoetara eta herritarrengana hurbiltzea.
- _ Bilbo "UNESCOn hiri sortzaileen sareko" kide dela ikusaraztea eta dinamizatzea.
- _ BBDW hitzordu aintzatetsi bihurtzea eta gero eta publiko zabalagoak erakartzea.
- _ Diseinuaren balioa sustatzea sektore eta eremu geografiko berrietan
- _ Jarduera prospektiboak eta zeharkakoak sustatzea.
- _ Networking-guneak eta ezagutza-trukea sustatzea desberdinen artean.
- _ Sektore sortzaileek Bizkaiko sare ekonomiko eta sozialean gero eta eragin handiagoa izatea lortzea.

eta honako hauek dira aurtengo edizioko helburu espezifikoak:

- _ Munduan gertatzen ari diren aldaketez jabetzea, pandemiak eta krisi sozioekonomikoak areagotuta, kultura- eta sormen-sektore desberdinetatik konponbideak ekartzen saiatzeko.
- _ Ahalik eta jarduera gehienak BBDW20ren gaiarekin lerrokatzea, horren inguruko hausnarketa eta diskurtsoa sortzeko.
- _ Zalantza egoera aurreikusten duen programa orekatu bat egitea —aurrez aurreko jarduerak eta jarduera birtualak —.
- _ Gero eta gehiago zabaltzea Bilboko eta Bizkaiko espazio berrietara, erakunde edo pertsona sustatzaile berrietara eta publiko profesional edo ez-profesional berrietara.

Aurtengo ediziorako aukeratutako gaia honako hau da: **enpatia^{RE}** mundu aldakorra berdiseinatzen.

Garai arraroak bizi ditugu, ziurgabetasun-garaiak, aldaketa-garaiak... Birus batek dena gelditu du (baita gelditzea ezinezkoa zela esaten zena ere), elkarrekin bizitzeko, sozializatzeko, ekoizteko edo kontsumitzeko modua aldatu du. Orain birpentsatu, birsortu, berregituratu, birlokalizatu egin behar da mundu hau. Nola egin nahi dugu? Enpatia izan daiteke bidea.

Horregatik, BBDW20 honetarako **enpatia^{RE}** proposatzen dugu gaitzat. Enpatia, mundu justuago eta iraunkorrago bat berreraikitzeke jarrera gisa. Enpatia, printzipio gisa, lagunduko diguna erlazionatzen garen moduak birdefinitzen; elkarreraginean erabiltzen ditugun gailuak, interfazeak eta tresnak, eta

ekoizten ditugun produktuak eta zerbitzuak berdiseinatzen; gure balio-, zaintza-, osasun-, hezkuntza-, mugikortasun-, ekoizpen-, bizileku- bizikidetzak-, kultura-, kontsumo- eta aisi-sistemak birpentsatzen.

Aintzatespenerako, biltzeko eta lan egiteko Design Week bat izango da trantsizio- eta aldaketa-prozesu horien guztien protagonisten artean. Aukera ezin hobea da enpresa, erakunde eta gizarte-erakundeetako profesionalen artean, herritarrengandik, prestakuntza-zentroengandik eta industria-sareari dagokionez, alternatibak planteatzeko, ideiak sortzeko, eta proposamen zehatzak garatzeko gizarte enpatikoagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko eta berreraikitzeko. Aukera paregabea hori guztia gizartean eta gizartearentzat diseinuaren eta sormenaren balioa azpimarratuz egiteko.

2. [Xedea](#)

Bosgarren edizioan, Bilbao Bizkaia Design Week-ek honako hauei irekiko dizkie ateak, aktiboki parte har dezaten: Bizkaiko sormen-sektoreetako profesionalak eta entitateak. Hain zuzen ere, prest egongo da helburuei eta gaiei lotuta dauden jarduerak proposatu nahi dituztenei entzuteko, gero, BBDW20ren programan gehi daitezen.

Deialdiaren helburua da, beraz, eragile eta profesional berriek ekimenak aurkezteko bideak erraztea eta sustatzea; horrela, ekitaldiaren zeregina indartuko da, Bilboko eta Bizkaiko sormen-ekonomiaren katalizatzaile gisa.

Edizio honetako erronketan jasotzen denez, interes partikularretik haratago doazen jarduerak bilatzen dira, BBDW20ren gaiarekin lotutakoak, eta malguak COVID-19arengandik eratorritako mugikortasun- eta segurtasun-eskakizunetara egokitzeko orduan.

3. [Sorkuntza-eremuak](#)

Bilbao Bizkaia Design Week-eko jarduerak sormen-eremu hauek dituzte oinarri: Animazioa, Arkitektura, Artisautza, Ikus-Entzunezkoak, Diseinua, Ilustrazioa, Interiorismoa, Makerrak, Moda, Publizitatea, Teckologia, Bidejokoak.

4. [Jarduerak](#)

Bilbao Bizkaia Design Week-en garatutako jarduera presentzialen eta birtualen formatuak honako hauek dira: solasaldiak, hitzaldiak, topaketak, azokak, erakusketak, instalazioak, mahai-inguruak, aurkezpenak, tailerrak/workshopak, bisitaldiak/ibilbideak...

5. [Parte-hartzaileen profila](#)

Sormen-sektoreetan lan egiten duten profesionalak edo enpresak, baldin eta azaroaren 19tik 26era garatzeko jarduera baten proposamen zehatz bat badute, bai eta gauzatzeko baliabideak ere.

6. [Jardueren proposamena](#)

Proposatutako jardueraren balorazio egokia egiteko behar den informazioa jasotzeko (erakunde sustatzailearen informazioa, jardueraren deskribapen laburra, behar diren baliabideak, eskura dauden baliabideak...) Fitxa bat egin da, eta 2020ko irailaren 18a baino lehen bete beharko da. Bilbao Bizkaia Design Week-eko antolakuntzako kideek jasotako proposamen guztiak aztertuko dituzte, edizio honetako helburu eta gaia oinarri hartuta, hauen bideragarritasuna baloratu eta aukeraketa egingo dute.

Ekimenen planteamenduak eta garapenak ezin izango dituzte urratu hirugarrenei legezko edozein tresnaren bitartez aitortutako eskubideak, nazioartekoak zein estatukoak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala barne.

Halaber, 1083/2006 Araudiko (EE), I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak errespetatu egin beharko ditu araudi horretan jasotako irizpideak; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorrarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jarduerari dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoarekin bat eginez, Bilbao Bizkaia Design Week-eko testuinguruan jarduerak antolatzen dituen entitateek proiektua eratzean eta garatzean lehenetasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea, proiektuak hala eskatzen duenean.

7. [Ordaina](#)

Hautatutako proposamenak BBDW20ren programazioan sartuko dira, eta komunikazio- eta sustapen-kanpaina bat edukiko dute estatuan zein nazioartean. Gainera, ondorengo onurak izango dituzte:

- _ Urriaren amaieran argitaratuko den inprimatutako BBDW programan agertuko dira, bai eta BBDW20ren webgune ofizialean argitaratutako programan ere.
- _ Horren berri emango da BBDW eta BiDCen sare sozialetan.
- _ Inprimatutako programaren kopiak eta BBDWren identifikatzailea edukitzea, jardueraren espazioan jartzeko.
- _ Komunikazio-ekintzetan BBDWren logotipoa erabiltzeko eskubidea.
- _ Bilboko eta Bizkaiko sormen-sektoreen erreferentziatzko ekitaldi garrantzitsu batean parte hartzea.
- _ Sormen-sektoreko aditu eta profesionalekin harremanetan egoteko aukera.
- _ Harremanetan egotea UNESCOren sormen-hirien sareko beste hiri batzuekin. Bilbo, hain zuzen, 2014. urtetik da kidea Diseinuaren kategorian.
- _ Bilbao Bizkaia Design Week-en idazkaritza teknikoa eskura izatea, jarduera egitea errazagoa izan dadin.

8. [Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa](#)

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu parte-hartzaileen datu pertsonalak. Tratamenduaren helburua zerbitzua ematea da, interesdunaren baimenarekin bat etorritik. Aipatutako zerbitzuekin lotura duten hirugarrenei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak. Interesdunek datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dute, bai eta tratamendua mugatzeko edo aurka agertzeko eskubidea ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi

BBDW
2020

enpatia^{RE}
mundu aldakorra
berdiseinatzen

20.11.19-26

izanez gero, Bilbao Ekintza EPELren webgunean dago eskuragarri, edo, bestela, helbide elektroniko honetan: juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Fitxara sarbidea